



Jai batzordeko lau kide, aurtengo egitarauaren kartelarekin. **📷 PORRONTXOETAKO JAI BATZORDEA**

Badatoz Porrontxoak, tradizioa eta inklusioa zainduz

Orgak apainduta eta mozorroak jantzita, Egian zehar ibiltzen dira kuadrillak Porrontxoaren lehen egunean. Musikaz, jendez, algaraz eta urez –bizilagunek leihotik behera botatzen dutena– betetzen dute Egia jaiari hasiera emateko.

📍 Maddi Viana

Aurten irailaren 14tik 20ra artean ospatuko dira Porrontxo jaiak. Hala ere, egun horietatik at ere egitaraua badute: hilarren 25ean, jaiak amaitu ondorengo ostiralean, *Azkena eta bagoaz!* eguna antolatu du jai batzordeak. Trapu Zaharra antzerki taldeak erretiroa hartu aurretiko azkeneko ikuskizuna egingo du eta Lasombradelflaco

taldearen kontzertua ere egongo da, bi jarduerak Iruresoro plazan izango dira.

Jai batzordea otsailean hasi zen antolatzen Patri Bengoetxea Gondat jai batzordeko kideak adierazi duenez, eta aldaketa tekniko asko egin dituzte. Azken urteetan prezioen igoera sumatu dela eta, lanketa handia egin dutela azaldu du Ben-

goetxeak: txosnetan ez da hainbeste kontsumitzen, beraz, dirua lortzeko beste bide batzuk probatuko dituzte; kamisetak saltzea, kasu.

Trebeska: 50 urteren aitortza

Trebeska Dantza Taldea haren 50. urteurrena ospatzen ari da aurten, horregatik agertzen da aurtengo Porrontxoaren kartelean bi erraldoiez eta ikurrinaz lagunduta. Hori soilik ez, Trebeska izango da jaiari hasiera ematen dien txupinazoa botako duena.

Dantza taldeak Egiari «ekarpen handia» egin dio eta «gure kulturaren transmisiorako tresna garrantzitsua» da Bengoetxeak azaldu duenez. Transmisio hori eta taldeak egin duen lanari aitortza egiteko omendu dute dantza taldea. Sorpresa bat ere prestatu dute, ez dute zer izango den azaldu nahi, baina gonbita egin dute: larunbatean, hilak 19, Plaza Haundin.

Denentzako egitaraua

Aurten Egiako ikastetxeekin elkartu da jai batzordea: Aitor Ikastola,

Maria Reina eta Zuhaziti –Egia eta Gros arteko muga trenbidean jartzen dute–. Haiek ere jaien parte izatea nahi dutela azaldu du jai batzordeko kideak, eta egindako bilerak harrera ona izan zuela gaineratu du.

Keinu hizkuntzak ere badu bere txokoa Porrontxoetan. Ez da lehenengo urtea egitarauan keinu hizkuntzan egiten diren jarduerak daudena, baina aurten egitaraua bera ere keinu hizkuntzan zabaldu nahi dutela jakinarazi du jai batzordeak. Horretarako, bideoren bat prestatzen ari direla ziurtatu du jai batzordeko kideak: «Oraindik ez dakigu zenbat izango diren».

Transmisio hori eta taldeak egin duen lanari aitortza egiteko omendu dute Trebeska Dantza Taldea

Enduro ere berriro egingo dute aurten, baina Porrontxoetako unerik bereziena, ordea, jaiari hasiera ematen dien jaitsiera dela baieztatu du Bengoetxeak, momentu hori «zalan-tzarik gabe politena» dela adieraziz. Hilabeteetan egindako lanaren fruituak ikusten hasten diren momentu hori, kuadrillak, mozorrotuta eta orgekin, auzoan barrena ibiltzen dira Porrontxoak hasi direnaren berri ematen. ●

IRAILAK 14-20

Haur, gazte eta helduen pala eta pilota txapelketa frontoian, aurrez izena emanda.

Bideo erakusketa Teila Fabrikan: *Porrontxo Jaiak, laster mende erdi!*

Egin zure blusa! Kuadrillentzako tailerra hitzordua adostuta, Teila Fabrikan.

ASTELEHENA 14

16:00

Haurren apar festa eta jolasak, Plaza Haundin.

17:00

Haurren txirrista erraldoia, Plaza Haundin.

Haurrentzako DJ tailerra Telmo Trenorrekina, Egia Records dendan.

18:00

Azoka txikia, Iruresoro plazan.

19:00

Eraso sexista eta arrazistari ez! Argazkia, Iruresoro plazan.

ASTEARTEA 15

17:00

Haurren patinete eta bizikleta festa (0-8 urte) eta aurpegi margotzea, Plaza Haundin.

Haur jolasen txokoa (0-3 urte), Plaza Haundin.

18:00

Talo tailerra, Plaza Haundin.

Kulturarteko oka jolas erraldoia familian, Plaza Haundin.

19:00

Mexikoren independentzia aldarrikapen ospakizuna mariatxiekin, Plaza Haundin.

19:30

Porrontxolari ikastaroa, Plaza Haundin.

ASTEAZKENA 16

17:00

Ortiz eta Eneko trikitilariak, Ametzagañako La Paz egoitzan.

Haur jolasak (3-6 urte eta +6 urte), Benita Asas plazan.

18:00

Gazte txupinazoa eta kalejira, Polloetik.

18:30

Txokolate jana, Benita Asas plazan.

19:00

IV. Kata Poetikoa Porrontxoaren omenez. Antipodetako ardo dastaketa eta irakurtaldia, Teila Fabrikan.

OSTEGUNA 17

17:00

Ortiz eta Eneko trikitilariak Aldakoneako egoitzan.



**IPURU S. L.
ERAIKUNTZAK**

**Mundaiz bidea, 10
2. solairua - 24. bulegoa
Tel.: 943-42 41 21
20012 DONOSTIA
www.ipuru.com**



Porrontxo erraldoiak eta buruhandiak kalejiran Joselontxos txarangarekin, Iruresorotik abiatu, Ametzagañara eta Karmengo Ama gainaldera.

17:30

Haurren txupinazoa, *Iritsi dira Porrontxo jaiak!* abestuz, Karmengo Ama gainaldea.

17:35

Haurren jaitziera, Porrontxo erraldoiekin, Karmengo Ama gainaldetik Plaza Haundira.

18:00

Mikeltxi DJ-a haurrentzako, Plaza Haundin.

20:00

Pregoa eta txupinazoa, Txondorrako plazan. Aurtengo pregoilaria Trebeska Dantza Taldea, 50. urteurrenagatik.

20:05

Kuadrillen jaitziera, Egia Sound System, Porrontxo erraldoiek eta Joselontxos txarangak lagunduta.

22:00

Karaoke herrikoia, Plaza Haundin.

00:00

Kuadrillen jolasak, Plaza Haundin

00:30

DJ-ak kuadrillan, Playlist herrikoia, Plaza Haundin.

OSTIRALA 18

08:00

Diana dultzaineroekin, auzoan zehar.

09:30

Kalejira Porrontxo buruhandi era erraldoiekin, Ametzagañako Aitor Ikastolatik Tejeriara.

10:00

Entzierro txikia adinen arabera, Tejeria kalean.

11:00

Ministro pisto haur ikuskizuna, Plaza Haundin.

Haurrentzako euskaraokea eta punteria jolasak (+8 urte), Iruresoro plazan.

14:00

Gazte bazkaria eta jolasak, Iruresoro plazan. Txartelak Kaktus, Kata eta Koskorrioren.

16:30

Buruhandiak, Benita Asas plazan.

17:00

Dantzaldi ibiltaria Porrontxo erraldoiekin, Benita Asas plazatik Tabakalerara.

17:30

Haurren jolasgunea, Blas de Otero plazan.

18:00

Gaztentxoentzako jolasak, zirkua, murala eta tailerrak txapa eta imanekin, Nestor Basterretxea plazan.

Kitadelpare gazte txaranga, Iruresoro plazan.

Ivan GM eta Oihan GP DJ-ak, Garraxi jatetxean.

BARNE DISEINUA ALTZARIAK

APAL

Ametzagaña 7
Egia-Donostia
www.apal.eus
943 320400
info@apal.eus

Gora Porrontxo jaiak!

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA - 'D' eredu
Konkorrenea, 7 - Ametzagaña, 40 - Tel.: 943-89 94 14
012358aa@hezkuntza.net - www.aitorikastola.hezkuntza.net

GORA EGIA ETA GORA PORRONTXO JAIK!

CACTUS TABERNA

PLAZA BERRI · EGIA

943-05 41 67

20:00

Haurren afari-merienda, Plaza Haundiko goialdean. Txartelak Kaktus tabernan salgai.

20:30

Familia dantzaldia, Plaza Haundin.

21:00

Beteranoen afaria, Tejeria kalean.

21:30

Zezensuzkoa, Tejeria kalean.

22:00

Enduro bizikleta jaitziera Ametzagaña inguruetan. Helmuga, Katako plazan.

Gazte erromeria: Tarraka eta auzo DJ-ak, Iruresoro plazan.

22:30

Kontzertua: Putas Amak, Plaza Haundin.

23:00

Beteranoen guatekea, Tejeria kalean.

23:30

Kontzertua: Silitia, Plaza Haundin.

Ando DJ-a, Le Bukowski tabernan.

01:30

Kontzertua: Tajon Prieto y Los Kuajolotes, Plaza Haundin.

LARUNBATA 19

09:00

Txistularien diana Kzazpirekin, auzoan zehar.

11:00

Egia Zeinuka eta Magic Sign ipuin kontaketa, Plaza Haundi goialdean.

12:00

Txokolate jana, Plaza Haundi goialdean.

Kantujira auzoan zehar, Kata tabernatik abiatuta.

VI Porrontxo Danborrada auzoan zehar, Iruresoro plazan hasita.

12:30

Kuadrilla beteranoen dantza-kale-potea, auzoan zehar.

14:30

Herri bazkaria, *Denak etxera!*, Plaza Haundin. Txartelak Kaktus, Kata eta Koskorrian.

17:00

Dantza potea Trebeska Dantza Taldea eta Kaña-2kala trikitilariekin, Plaza Haunditik abiatuta.

Inguruko auzoetako erraldoiekin kalejira erraldoia buruhandiek lagunduta, Zuhaiztitik Plaza Haundira.

Piñata eta Kunbia sonideroa, Doña Chepinan.

*Egia Berriz Ringe*an Boxeo omenaldia kiroldegian, ordainpeko sarrerarekin.

18:00

Purpurina eta Rockanrolla, Iruresoro plazan.

18:30

Eskrima erakustaldia, Tejerian.

Lilith Selektu DJ-a eta lagunak, Ametzagaña Anden tabernan.

21:00

Kontzertua: Eremu, Iruresoro plazan.

Zezensuzkoa, Tejeria kalean.

Kuadrillen afaria, Tejeria kalean.



Karmengo Andre Maria, 21
 ☎ 943-27 88 28 - 943-27 50 38
www.zumy.com • info@zumy.com



23:00

Kontzertua: Rock Kam Broom!, Iruresoro plazan.

Erromeria Itzal taldearekin, Plaza Haundin.

Mitx DJ-a, Agreda tabernan.

23:30

Flank Sinnata DJ-a, Le Bukowski tabernan.

00:00

Trebeska!, Plaza Haundin.

01:00

Alai b2b Juantatorri DJ-a, Iruresoro plazan.

02:00

DJ-ak, Plaza Haundin.

IGANDEA 20

08:00

Kalejira Porrontxo erraldoiak eta ilargi txarangarekin.

10:00

Zumba, Plaza Haundin.

10:30

Pala eta eskuzko pilota finalak, frontoian.

11:00

Txistulariekin kalejira Kzazpirekin, auzoan zehar.

12:00

Sagardo dastaketa, Plaza Haundin.

Kuskus tailerra komunitatea eta auzolana sustatzeko, Plaza Haundin.

14:30

Herri bazkaria, Plaza Haundin.
Txartelak Baztarre eta Agredan.

17:00

Herri kirolak, Plaza Haundin.

19:00

Kontzertua: Bikusitik, Plaza Haundin.

21:00

Azken kalejira Porrontxo erraldoiak eta Kilkerband txarangarekin, auzoan zehar. Plaza Haunditik hasi eta bukatu.

22:00

Azken traka eta argazkia, Plaza Haundin.

23:00

Gui Ar De Guold, Kaktus tabernan.

OSTIRALA 25

19:30

Antzerkia kalean, Trapu Zaharra agur bira: *La última y nos vamos*, Plaza Berrin.

20:30

Kontzertua: Lasombradelflaco, Iruresoro plazan.

GORA PORRONTXO JAIK!

ateri
koop

373 ABOKATUAK

aholku koop

koop57 | euskal herria
scc

Ametzagaina, 17, behea, Egia 20012 Donostia • 943005680 • ateri@aholku.eus

MariaReinaEskola

Ongi Etorri Hezkuntzaren Bidaiara

Ondo pasa jaietan!

Ametzagaña 58 • Egia • 20012 • Donostia
T 943 27 15 96 / mariareinaeskola.com

